




2.MERKATUAREN SEGMENTAZIOA



Gure enpresak eskaintzen duen produktua aplikazio bat da, beraz, bezeroa edozein izan daiteke. Izan ere, gure produktua gazteei zuzentzen zaie. Hau da, gure aplikazioa taberna giroan erabiltzeko izango da. Gune horietan, normalean, gazteak ibiltzen direnez haiei zuzenduta dago. Hala ere, gazteak ez ezik taberna giroa gustuko duen jendeak ere erabil dezake. Baina, ez da haiei zuzenduta egongo, jende heldua, alde batetik, ez delako festa giroan egoten eta bestetik, aplikazioak erabiltzea zaila egiten zaielako edo ohituta ez daudelako. Gazteak, ordea, mugikorra eta bertako aplikazioak asko erabiltzen dituzte eta ondo dakite nola erabili.



Gure aplikazioaren erabiltzaileak hainbat ezaugarri izango ditu. Hala nola, musika izango du gustuko, nahiz eta musika mota desberdinak izan. Festa giroa ere gustuko izango du. Beraz, aplikazio hau oso erabilgarria egingo zaio bere beharrak asetzeko. Horrez gain, mugikorra duten eta ondo erabiltzen duten jenderari zuzenduta dago. Gaur egungo gazteek ondo menperatzen dituzte aplikazioen erabilera desberdinak eta horregatik haiei zuzenduko zaie.



Laburbilduz, bezeroak gazteak izango direla esan daiteke festa eta taberna giroan erabiltzeko aplikazioa izango delako. Haien ezaugarri nagusia musika eta festa gustuko izatea izango da. Gainera, gaur egungo teknologiarekin harreman estua izango dute. Beraz, aplikazioa ez da pertsona helduei zuzenduta egongo ez baitituzte aurreko ezaugarriak betetzen.